

Aztertu arreta handiz taula honetako datuak:

	Euskal A.E.		
	Batezbesteko egonaldia	Betetze-maila, plazaka	Betetze-maila, gelaka
2008			
Urtarrila	2,52	10,73	12,89
Otsaila	2,26	16,58	19,08
Martxoa	3,00	28,47	31,00
Apirila	2,17	18,06	19,98
Maiatza	3,05	24,37	27,08
Ekaina	2,48	23,81	27,02
Uztaila	3,03	39,52	42,18
Abuztua	4,65	64,23	67,40
Iraila	2,81	28,87	32,46
Urria	2,34	20,12	23,17
Azaroa	2,34	17,20	20,42
Abendua	2,48	19,53	21,57
2009			
Urtarrila	2,56	9,81	12,12
1998	2,38	23,34	24,79
1999	2,73	27,66	28,70
2000	2,52	24,69	24,59
2001	2,62	25,08	28,08
2002	2,60	26,95	28,21
2003	2,66	27,03	28,53
2004	2,97	29,15	31,21
2005	2,78	28,04	30,37
2006	3,00	28,95	32,45
2007	3,00	27,00	30,68
2008	2,90	26,29	28,69

Iturria: <http://www.eustat.es/estad/temalista.asp?tema=102&idioma=e&opt=0>
 (Taula berdin bat edo eguneratua aurkituko duzu)

Zer esan nahi du batezbesteko egonaldiak? Ostalariak landa-turismoko etxeetan ostatu hartuta egon diren egunen batezbestekoa da batezbesteko egonaldia. Adierazi behin hona etorri gero denbora luzean edo gutxian egoten diren.

Nola kalkulatzen da hori? Balio hori lortzeko, bidaiaria ostatu hartuta egon den gau kopuruaren batezbesteko aritmetikoa kalkulatu behar da.

Eman dezagun hurrengo taulak adierazten duela zenbat gau eman zituzten landa-turismoko etxe batean aste berean iritsi ziren 12 bidaiarik.

Bidaiariak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Gau kopurua	3	3	2	2	2	4	4	1	1	2	2	2

Batezbesteko egonaldia = $(3+3+2+2+2+2+4+4+1+1+2+2+2)/12 = 28/12 = 2,33$

Hau da, 2 gau baino gehiago eta 3 baino gutxiago da batezbestekoa.

1/ Kalkulatu zein den batezbesteko egonaldia kasu hauetan:

a) Hil honetan 15 bidaiari izan dira landa-turismoko etxean, eta hauxe da horietako bakoitzak bertan emandako gau kopurua:

Bidaiariak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
Gau kopurua	3	3	3	7	7	7	7	2	2	1	1	1	4	4	4

Batezbesteko egonaldia hil honetan:

b/ Hamabostaldi honetan 10 bidaiari izan dira landa-turismoko etxean, eta hauxe da horietako bakoitzak bertan emandako gau kopurua:

Bidaiariak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Gau kopurua	4	4	3	3	3	5	5	5	5	5

Batezbesteko egonaldia hamabostaldi honetan:

Datuak asko badira eta gainera errepikatu egiten badira, bada modu azkarxeago bat batezbesteko aritmetikoa kalkulatzeko.

Eman dezagun hurrengo datuok adierazten dutela zenbat gau eman dituzten hilabete batean landa-turismoko etxe batean ostatu hartuta egon diren berrogei bidaiarik:
 3,3,4,4,2,2,2,2,3,3 2,2,2,2,5,5,3,3,3,3 4,4,4,4,2,2,2,2,7,7 1,1,4,4,5,5,2,2,3,3

Aldagaiaren balioa "gau kopurua": x	Balioaren maiztasuna: f	f.x
1	2	2
2	14	28
3	10	30
4	8	32
5	4	20
6	0	0
7	2	14
	n= 40	

1/ Lehenengo pausoa da balio txikiena eta handiena identifikatzea, eta gero bien artean dauden balio guztiak idaztea: 1,2,3,4,5,6,7

2/ Ondoren, balio horietako bakoitza zerrendan zenbat aldiz agertzen den kontatu behar da; kopuru horri balioaren maiztasuna deitzen zaio. Onena balio horiek biltzeko taula bat egitea izan ohi da. Maiztasun guztiak batzea komeni da, ondo kontatu dugula ziurtatzeko. Balio hori "n" letrarekin irudikatzen da.

3/ Aldagaiaren balio bakoitza bere maiztasunarekin biderkatzen da, eta aurreko biei itsatsitako zutabeen idazten da.

4/ f.x zutabeko balio guztiak batzen dira: $2+28+30+32+20+0+14=126$

5/ Balioen guztizko kopuruaz zatitzen da: $n=40$

Batezbesteko aritmetikoa edo $x_m = 126/40=3,15$

❖ Kalkulatu balio banaketa hauen batezbesteko aritmetikoa:

4, 6, 5, 7, 8, 2, 8, 6, 5, 4, 5, 6, 7, 3, 4, 5, 6, 7, 2, 3, 4

Batezbesteko aritmetikoa:

4, 7, 8, 1, 4, 5, 2, 3, 4, 7, 3, 4, 5, 1, 2, 3, 6, 5, 4, 7, 5, 3, 4, 5, 2, 3, 6, 4

Batezbesteko aritmetikoa: